

NOTA DE PRENSA :: PRENTSA OHARRA

En la presentación de sus respectivos informes anuales de 2012

Las Cáritas de Euskadi advierten que las situaciones de pobreza se están agravando y haciendo persistentes en el tiempo

En el análisis de los datos del año 2012 se aprecia que la situación de pobreza y vulnerabilidad social de las personas y familias atendidas por las Cáritas Diocesanas de Bilbao, San Sebastián y Vitoria van empeorando a medida que persiste en el tiempo, así como que esta ‘cronificación’ de las situaciones está provocando el consiguiente alargamiento de los procesos de incorporación social.

Caritas Euskadi, 29 de mayo de 2013. – Cuatro son las principales causas de este empeoramiento que conlleva que un tercio de las personas atendidas por Caritas en 2012 lleven más de tres años siendo acompañadas. Al endurecimiento de las condiciones de vida (principalmente por culpa del desempleo y el endeudamiento de las familias) se une un creciente desgaste de sus redes de apoyo familiar y social. Agrava su situación que la respuesta a esta realidad social es insuficiente en materia de prestaciones económicas, sanidad, educación y servicios sociales, a lo que se une la desesperanza con la que las familias perciben su horizonte vital.

Caritas, en clave de esperanza para el futuro

En clave positiva y de esperanza de cara al futuro, cabe destacar durante 2012 el papel de la movilización y participación ciudadana en la búsqueda de alternativas de mejora, como por ejemplo la iniciativa legislativa popular frente a los desahucios, apoyadas y ampliamente respaldadas por la base social de las tres Cáritas de Euskadi.

También el constante incremento del número de personas que se han acercado a Caritas para participar como voluntarias, socias y donantes –digno del mayor de los agradecimientos- hace que Caritas sea optimista por lo que supone de aumento de la sensibilidad y del compromiso social con las personas más desfavorecidas.

Por último, el camino recorrido con otras organizaciones del tercer sector, el trabajo en red, y la interlocución con las administraciones también es signo de esperanza en la construcción de una sociedad más justa, así como la colaboración de empresas y organizaciones en general.

Endurecimiento de las condiciones de vida

Dos de los principales motivos de la precarización de las condiciones de vida de las familias a lo largo de estos últimos años son el desempleo y el endeudamiento de los hogares, principalmente relacionado con las dificultades de la familia para hacer frente a los gastos de mantenimiento de la vivienda (hipotecas/alquiler).

Las principales demandas de ayuda recibidas en las Acogidas de Cáritas durante 2012 han sido las relacionadas con las necesidades básicas de tipo material (vivienda, alimentación y ropa); demandas relacionadas con el empleo y la formación, así como otro tipo de demandas “de apoyo” (ayudas económicas para actualizar documentación, para desplazamientos necesarios para la búsqueda de empleo, para realizar formación, para realizar gestiones vinculadas a procesos de inclusión, etc.).

En concreto, entre las tres Cáritas de Euskadi se han ofrecido más de 30.000 respuestas de ayuda económica para necesidades básicas y se han invertido cuatro millones y medio de euros para ayudar a las familias en la mejora de sus condiciones de vida básicas.

El desgaste de la solidaridad intrafamiliar

El alargamiento en el tiempo de las situaciones de desempleo, falta de ingresos, falta o insuficiencia de las políticas públicas, etc. tiene un impacto negativo de gran calado en la red familiar. Se está produciendo un claro “desgaste” en la función protectora y de solidaridad intrafamiliar, agravado por la persistencia en el tiempo de las situaciones de pobreza.

Las familias perciben con desesperanza su horizonte vital

Junto con el empeoramiento de las condiciones de vida (paro, deudas, vivienda...) y como consecuencia que el impacto que este empeoramiento tiene en el ámbito relacional, los factores de debilitamiento de la función protectora intrafamiliar están relacionados con el desgaste emocional, el aumento creciente de conflictos familiares y el deterioro de la comunicación interna.

Una de las características principales de un gran número de personas atendidas en Cáritas es la soledad o una red de relaciones de apoyo insuficiente para abordar la situación de precariedad económica y material de manera acompañada, compartida, que ayude a la autoestima y a una perspectiva positiva de futuro. En este sentido, el acento del modelo de acción social de Cáritas en el acompañamiento a los procesos personales y familiares más allá de las ayudas es un factor importante muy valorado por las personas atendidas.

La respuesta a esta realidad social es insuficiente en materia de prestaciones económicas, sanidad, educación y servicios sociales

En general, las personas que solicitan algún tipo de ayuda a las Cáritas de Euskadi no cuentan con ningún otro sistema de protección pública en materia de prestaciones económicas (desempleo, RGI y/o AES, y la AGI en Gipuzkoa) y las personas que sí tuvieron posibilidades de acceder a la RGI en 2012 esperaron, en términos generales, más de cuatro meses entre la solicitud y el cobro efectivo de esta prestación (situación significativa, sobre todo si tenemos en cuenta que un 83% había pasado previamente por Servicios Sociales). Así, las principales situaciones de dificultad relacionadas con el sistema público de garantía de ingresos con las que se han encontrado las familias atendidas en la red de Cáritas Euskadi durante 2012 fueron el endurecimiento de los requisitos de acceso (por la modificación de la Ley) y las dificultades de gestión en las ayudas públicas.

Cáritas Euskadi llama –por todo ello- a incidir en la apuesta por los Derechos Sociales, concretados en la realización de políticas sociales y de empleo que apuesten por la promoción social, el trabajo en procesos, el acompañamiento y la inserción laboral y social de todas las personas, especialmente de las más desfavorecidas de nuestra sociedad. Precisamente, la campaña institucional que todas las Cáritas haremos este fin de semana con ocasión del Corpus apuesta -dentro del lema general “Vive sencillamente para que otros sencillamente puedan vivir”- por la búsqueda de un nuevo modelo de convivencia donde la persona sea el centro y donde se ponga el valor la economía de la gratuidad, animando a todas las personas a participar activamente –cada cual en la medida de sus posibilidades- frente a esta situación en la que nos encontramos.

Campaña del ‘CORPUS’ los días 1 y 2 de junio:

En Bizkaia, Cáritas aprovecha la celebración el sábado del Día de la Caridad en Lekeitio (que congregará a más de 400 personas) y de la Campaña de CORPUS en todas las parroquias (el domingo 2), para presentar los datos completos de su intervención durante todo el año pasado en el ‘Informe Anual 2012’. La campaña “Eta nik, zer egin dezaket? - Y yo, ¿qué puedo hacer?” incidirá este fin de semana en las 300 parroquias de Bizkaia en el valor de la gratuidad, característica esencial del voluntariado (más 2.440 personas voluntarias que colaboran con Cáritas Bizkaia en estos momentos [un 3,1% más que en 2011]), y presentará a cada persona un pequeño catálogo de acciones al alcance de todos que pueden ayudar a cambiar el mundo: hacerte voluntaria, socio, donante, ceder una vivienda no utilizada para fines sociales, hacer un legado solidario, realizar gestos cotidianos solidarios y responsables como ahorrar en banca ética, participar en grupos de comercio responsable, comprar en tiendas de comercio justo, acudir a actos públicos a favor de las personas excluidas, desmontar prejuicios a nuestro alrededor, etc.

Análisis de la intervención:

Cáritas Diocesana de Bilbao hace público su informe anual, que recoge los datos básicos de su intervención durante el año 2012 en toda Bizkaia. Durante ese año, la entidad socio-caritativa de la Iglesia diocesana de Bizkaia atendió a través de sus diferentes programas y proyectos a 13.002 personas, nos mantenemos, por tanto, en los volúmenes generales de atención de estos últimos años. A partir de 2007 se ha producido un incremento en torno a las 4.000 personas y nos mantenemos en estos niveles.

Cabe señalar que detectamos un descenso significativo del grupo de personas atendidas de origen extracomunitario (en dos años ha bajado un 16% el número de mujeres y un 21% el número de hombres de ese origen). En sentido contrario, en ese mismo período de tiempo se ha incrementado notablemente el número de personas de la unión europea (principalmente autóctonas): un 31% más de mujeres y nada menos que un 60% más de hombres (de 1.576 hombres con origen en la UE en 2010 se pasa en 2012 a 2.529, casi mil más). Por lo tanto, podríamos estar ante una modificación de los perfiles de las personas atendidas.

Este último año se ve ya con claridad una tendencia que ya se apuntaban años anteriores: se reduce presencia de personas extracomunitarias en el total de personas atendidas (del 67,6% en 2010 al 62,1% en 2011 y –ahora- al 54,4% en 2012: más de 13 puntos en tan solo dos años), mientras que las personas de la Unión Europea alcanzaron en 2012 casi el 46% del total..

En relación a la distribución por sexo, se mantienen exactamente los porcentajes de 2009, 2010 y 2011, que en su momento rompieron la anterior tendencia de aumento del número de mujeres, bajando éste del 63 al 58%. Pese a ello, el porcentaje de mujeres atendidas por Cáritas sigue siendo 16 puntos superior al de hombres (58,2 frente a 41,8%), mostrando a las claras que el fenómeno de la ‘feminización de la pobreza’ sigue sin reducirse.

Respecto a la edad, no hay diferencias apreciables respecto a 2008, 2009 y 2010, siendo principal la franja de edad la que comprende de 31 a 45 años (5.188 personas), seguida por la de 16 a 30 años (3.502 personas). Entre ambas franjas (de 16 a 45 años) suman más de 8.690 personas sobre las más de trece mil atendidas.

Al inicio de la crisis aumentó el porcentaje de altas nuevas en Cáritas (personas que se acercaban a Cáritas por haber empeorado su situación) al incrementarse el número total de personas atendidas; en cambio, en 2012 éste crece menos y el número de altas nuevas se reduce al 36,4%: mientras que –por la cronificación de la pobreza– crecen más las atenciones largas que necesitan un período de tiempo más largo para salir de la situación de desventaja social en la que se encuentran (25,2% de las personas atendidas en 2012 llevaban 5 ó más años acompañadas por Cáritas Bizkaia).

Análisis cuantitativo:

Observando la distribución por proyectos, queda patente que la mayor parte de las personas atendidas lo han sido en las Acogidas (área acción social de base), es decir, en los sistemas relacionados con la protección más básica (ayudas económicas y soporte), sin duda como consecuencia de la crisis económica, o bien en el área de Inserción Laboral (empleo), sumando entre ambas casi 8.886 personas atendidas. Sin embargo, otros programas numéricamente menores suponen procesos de incorporación social de larga duración (adiciones, personas sin hogar...), o bien un trabajo de prevención y de acompañamiento de las personas mucho más sostenido en el tiempo (familia-inserción social, mayores, infancia...).

Así, hay que destacar que en Cáritas Bizkaia hemos seguido trabajando desde todas las Áreas en las que ya veníamos haciéndolo con anterioridad, pero -además- se ha hecho un importante esfuerzo para paliar en cierta medida los efectos de la crisis, con acciones del mismo que se han convertido ya en estables (vales de alimentación, comedor económico de Barakaldo, 'GizaLAN'...).

Datos internos:

En 2012, Cáritas Bizkaia consiguió la estabilidad entre ingresos recibidos y gastos (12.049.652,21 Euros), ya que pese al ligero incremento de los gastos por el aumento de las intervenciones realizadas (más de 100.000) con las personas atendidas, también ha habido un incremento en los ingresos, especialmente destacable en las colectas realizadas en las parroquias y centros de culto de Bizkaia en las cuarto campañas anuales, que suben –por segundo año consecutivo- más de 120.000 Euros, para pasar de 807.098 en 2010 a 1.057.097 este pasado año. Es especialmente destacable y digno de agradecimiento este hecho por lo que supone de esfuerzo en unas personas que ya venían apoyando económicamente a Cáritas y que siguen haciéndolo aún más en época de dificultad. Se mantiene similar el porcentaje de ingresos por servicios prestados a la Administración Pública, menos de un tercio del total.

La fuerza de la institución radica -en lo económico- en esas más de cinco mil cien personas socias y donantes que confían en Cáritas Bizkaia para encauzar su participación solidaria (un 8,6% más que el año anterior); una tendencia que desde que comenzó la crisis que sigue ascendiendo año tras año.

En cuanto a los recurso empleados, casi 2 de cada 10 euros corresponden al programa de Acción Social de Base (acogidas), principalmente a las ayudas económicas directas (1.761.435,45 Euros). Se mantienen prácticamente igual otros programas que atienden menos personas pero requieren procesos más largos de acompañamiento a personas en situación de grave exclusión (Personas Sin Hogar 13%; Adicciones 12%), y el resto de los programas, salvo empleo que baja del 14 al 12% del total.

Por último, mencionar que -un ejercicio más- “AUREN Auditores”, tras auditar las cuentas de Cáritas Diocesana de Bilbao, manifiesta que expresan la imagen fiel del patrimonio y situación financiera, así como de los resultados de sus operaciones correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2012.

Cáritas Diocesana de Bilbao - Bilboko Elizbarrutiko Cáritas:

Es la entidad socio-caritativa de la Iglesia Diocesana para atender a las personas en situación o riesgo de exclusión en toda Bizkaia. Para ello, cuenta con diferentes áreas de intervención social como: acogida, vivienda, familia-inclusión social, infancia, mayores, inserción laboral (empleo), personas sin hogar, adicciones, servicios jurídico y psicológico, etc.; además del programa de cooperación internacional y migraciones, y los departamentos y servicios de animación comunitaria, sensibilización y comunicación, voluntariado, recursos humanos y formación, investigación y gestión del conocimiento, calidad, publicaciones... Sin embargo, el fin último de Cáritas sigue siendo el mismo desde sus orígenes hace casi 60 años: trabajar por la justicia para transformar nuestra sociedad en otra más justa, igualitaria y fraterna, donde todas las personas -sin exclusión- tengan cabida.

NOTA DE PRENSA :: PRENTSA OHARRA

2012ko urteko txostenen aurkezpenean

Euskadiko Cáritasek ohartarazi dute pobrezia egoerak larriagotzen eta denboran egonkortzen ari direla

2012ko datuen azterketan ikus daiteke Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutietako Cáritasek arreta emandako pertsona eta familien pobrezia eta babesgabetasun egoera okerrera doala eta denboran egonkortzen ari dela. Gainera, egoera horiek “kroniko” bihurtzeak eragiten du gizarteratze-prozesua luzeagoa izatea.

Euskadiko Cáritas, 2013ko maiatzaren 29a.- Cáritasek 2012an arreta emandako pertsonen herenak hiru urte baino gehiago daramatzate laguntza horren beharrean. Horren arrazoi nagusiak lau dira: Bizi-baldintzak gogortzea (batez ere langabeziaren eta familien zorpetzeen eraginez) eta gainera familia eta gizartearen babes-sareak ahultzea. Errealitate sozial horren erantzuna ez da nahikoa zerbitzu ekonomiko, osasun, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuei dagokienez. Horri gehitu behar zaio familiek ez dutela etorkizunean itxaropenik ikusten.

Cáritas, etorkizunerako itxaropen izpia

Faktore positibo eta itxaropentsu moduan, esan behar dugu 2012an herritarrak hobekuntzarako aukeren bila mobilizatu eta parte hartzen aritu direla, hala nola kaleratzeen aurkako herri ekimena. Ekimen horri babes handia eman diote Euskadiko hiru Cáritasek.

Gainera, gero eta jende gehiago etortzen ari da Cáritasera boluntario, bazkide eta emaile bezala parte hartzeko –eskerrik beronenak emateko modukoa-. Horri esker, Cáritas baikorra da, ahulenen aldeko sentsibilitatea eta gizarte konpromisoa hazi egin direla ikusten dugulako.

Azkenik, hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekin egindako lana, sareko lana eta administrazioekiko hartu-emana ere itxaropen seinaleak dira, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko bidean. Eta noski, orokorrean enpresa eta erakundeek emandako laguntza ere aipatu beharra dago.

Bizi-baldintzak gogortzea

Azken urteetan familien bizi-baldintzak prekarioago bihurtzea eragin duten arrazoi nagusietako bi hauek izan dira: langabezia eta familien zorpetzea, batez ere etxebizitza mantentzeko gastuei aurre egiteko familiek dituzten zailtasunekin lotuta (hipotekak/alokairua).

2012an Cáritasen Harreran jasotako laguntza-eskaerak oinarrizko beharrizan materialekin lotutakoak izan dira (etxebizitza, elikadura eta arropa); enpleguarekin eta prestakuntzarekin lotutako eskaerak, eta bestelako “laguntza” eskaera batzuk (dokumentazioa eguneratzeko laguntza ekonomikoak, enplegua bilatzeko lekuz aldatu beharra, prestakuntza egiteko, gizarteratze-prozesuei lotutako gestioak egiteko, eta abar).

Zehazki, Euskadiko hiru Cáritasen artean laguntza ekonomikoa emateko 30.000 erantzun baino gehiago eman dira, oinarrizko beharrianak estaltzeko, eta lau milioi eta erdi euro inbertitu dira familiei euren oinarrizko bizi-baldintzak hobetzeko laguntza emateko.

Familia barruko elkartasuna ahultzea

Langabezia egoera, diru-sarrera falta, politika publiko falta edo nahikorik ez izatea, eta abar, eragin negatibo handia izaten ari dira familia-sarearen egiturari. Familia barruko zaintza eta elkartasuna ahultzen ari dira, pobrezia egoerak denboran egonkortzearen ondorioz.

Familiak ez dute itxaropenik ikusten etorkizunean

Bizi-baldintzak okertu egin dira (langabezia, zorrak, etxebizitza...) eta okertze horren ondorioz, harremanen esparrua ahuldu egin da, familia barruko zaintza-funtzioa desgaste emozionala jasaten ari da, gero eta gatazka gehiago daude familia barruan eta barne-komunikazioaren egoerak okerrera egin du.

Cáritasen arreta emandako pertsonetako askoren ezaugarri nagusia bakardadea da; bakarrik daude, edo prekariotasun ekonomikoa eta materialaren egoera horri aurre egiteko harreman-sare nahikorik ez daukate; ez dute laguntza nahikorik eta horrek autoestimuarri eta etorkizunera begira ikuspegi positibo bat izateari kalte egiten die. Zentzu horretan, Cáritasen gizarte-ekintza ereduak indar handiagoa jarri du prozesu pertsonal eta familiarrei laguntza emateko orduan, laguntza hutsetatik harago; eta hori oso garrantzitsua da arreta jasotzen duten pertsonentzat.

Errealitate honi eman beharreko erantzuna ez da nahikoa zerbitzu ekonomikoa eta osasun, hezkuntza eta gizarte zerbitzuei dagokienez

Orokorrean, Euskadiko Cáritasei laguntza-motaren bat eskatzen dieten pertsonak ez daukate babes publikoko beste sistemarik laguntza ekonomikoei dagokienez (langabezia, DBE edota GLL eta AGI Gipuzkoan) eta 2012an DBE eskatzeko aukera izan zuten pertsonak, orokorrean, lau hilabete baino gehiago itxaron behar izan zuten eskaeraren eta laguntza horren kobrantzaren artean (egoera adierazgarria da, batez ere kontuan hartzen badugu %83 aurretik Gizarte Zerbitzuetatik pasatu zela lehenago). Horrela, 2012an Euskadiko Cáritasen sarean arreta jasotako familiak diru-sarrerak bermatzeko sistema publikoarekin lotuta izan dituzten zailtasun-egoera nagusiak hauek izan ziren: ezaugarriak zorrotzagoak izatea (Legearen aldaketagatik) eta laguntza publikoen kudeaketaren zailtasunak.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko Cáritasek Gizarte Eskubideen alde egitera deitu du, gizarte-sustapenaren, prozesukako lanaren, eta pertsona guztien laguntzaren eta laneratzearen aldeko lan eta gizarte politikak egitean zentratuta, batez ere gure gizarteko pertsonarik ahulenen alde. Hain zuzen ere, Cáritas guztiek Korpusaren ospakizuna dela-eta asteburu honetan burutuko dugun kanpaina instituzionalak –“Xume bizitzea aukeratu, beste batzuek bizitzeko aukera izan dezaten” lelopean- apustu sendoa egiten du garapenerako gizarte eredu berri baten alde, pertsona oinarriztat izango duen bizitza-estilo baten alde, eta doakotasunaren ekonomiaren balioaren alde. Pertsona guztiei animoak eman nahi dizkiegu bizi dugun egoera honen aurrean aktiboki parte hartzera.

KORPUS Kanpaina, ekainaren 1ean eta 2an:

Bizkaiko Cáritasek, larunbatean Lekeition Karitate Eguna ospatuko duela (400 pertsona baino gehiago bilduko dira) eta parrokia guztietan KORPUS Kanpaina egingo dela aprobetxatuz (igandean, hilak 2), joan den urteko esku-hartzearen datuak jasotzen dituen “2012ko Urteko Txostena” aurkeztuko du. -“Eta nik, zer egin dezaket?” kanpaina Bizkaiko 300 parroketan landuko da asteburu honetan, doakotasunaren balioa nabarmenduz; izan ere, hori da boluntariotzaren funtsezko ezaugarria (2.440 boluntario ari dira une honetan Bizkaiko Cáritasekin lanean -2011n baino %3,1 gehiago). Era berean, mundua aldatzen lagundu dezaketen eta denon eskura dauden ekintzen katalogo txiki bat aurkeztuko da: boluntario, bazkide edo emaile egitea, erabiltzen ez duzun etxebizitza bat gizarte arloko helburuetarako lagatzea, opari solidario bat egitea, eguneroko keinu solidario eta arduratsuak egitea, hala nola banka etikoan aurrezteak, kontsumo arduratsuko taldeetan parte hartzea, bidezko merkataritzako dendetan erostea, bazterkeria egoeran dauden pertsonen aldeko ekitaldietara joatea, gure inguruan dauden aurreiritziak alde batera uztea, eta abar.

Esku-hartzearen azterketa:

Bizkaiko Elizbarrutiko Cáritasek urteko txostena kaleratuko du, Bizkaia osoan 2012n izan duen esku-hartzearen funtsezko datuak bilduz. Urte horretan zehar, Bizkaiko Elizbarrutiko gizarte-eta karitate-erakundeak, beraien programa eta proiektuen bidez, 13.002 laguni eman die laguntza, hau da, iaz (2011) baino %3,4 gutxiagori, baina 2007an baino ia 4.000 pertsona gehiagori (krisia hasi aurreko azken urtea zen hori).

Geldialdi horren azalpen nagusia da erkidegotik kanpoko pertsonen kopurua dezente jaitsi dela (bi urtetan emakumezkoen kopurua %16 jaitsi da eta gizonezkoen kopurua %21), bai beren herrialdeetara itzultzeko ari direlako, baita hirugarren herrialde batzuetara mugitzen ari direlako ere. Aldiz, denbora tarte horretan Europar Batasuneko pertsona kopurua igo egin da (batez ere bertakoak): Emakumezkoen kasuan %31 gehiago eta gizonezkoen kasuan %60 gehiago dira (2010ean EBko 1.576 gizonezko zeuden eta 2012an 2.529, ia mila gehiago).

Azken urtean argi ikusi da aurreko urteetan nabarmentzen hasi zen joera bat: Arreta emandako pertsonen kopuru osoan erkidegotik kanpoko pertsona gutxiago daude (2010ean %67,6 ziren, 2011n %62,1 eta orain, 2012an, %54,4; 13 puntu baino gehiago jaitsi da bi urtetan). Aldiz, Europar Batasuneko pertsonen kopurua guttizkoaren ia %46a izan da 2012an.

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, 2009, 2010 eta 2011ko portzentajeak bere horretan mantentzen dira, bere sasoian aurreko joera apurtu zutenak, hau da, emakume gehiago izatea; portzentajea %63tik %58ra jaitsi zen. Hala ere, Cáritasen arreta emandako emakumezkoen portzentajea gizonezkoen portzentajearen gaineratik dago, 16 puntu, hain zuzen (%58,2 eta %41,8 hurrenez hurren). Argi dago “pobreziaren feminizazioaren fenomenoak” ez dela murriztu.

Adinari dagokionez, ez dago desberdintasun adierazgarriarik 2008, 2009 eta 2010 urteekin alderatuta. Adin-tarte nagusia 31 urtetik 45 urtera bitartekoa da (5.188 pertsona), eta jarraian 16tik 30era bitartekoa (3.502 pertsona). Tarte bien artean (16tik 45era), 8.690 pertsona baino gehiago dira, arreta emandako hamahiru mila pertsonen gainean.

Grafikoan ikus daitekeenez, krisiaren hasieran, Cáritasen emandako alta kopuruak (egoera pertsonalak okerrera egin direla-eta Cáritasera gerturatu ziren pertsonak) gora egin zuen, eta arreta eman zitzaizkien pertsona-kopurua gehitu egin zen. 2012an, berriz, kopuru hori gutxiago hazi da, eta alta berrien kopurua %36,4ra jaitsi da: hala ere –pobrezia kroniko bihurtzeagatik hain zuzen-, epe luzearako arreta gehiago ematen dira, dauden desabantaila sozialeko egoeratik irteteko denbora luzeagoa behar dutelako (2012an arreta emandako pertsonen %25,2ak 5 urte edo gehiago daramatzate Bizkaiko Cáritasen laguntza jasotzen).

Analisi kuantitatiboa:

Proiektukako banaketari begira, argi dago arreta eman zaien pertsona gehienei Harreretan eman zaiela (oinarrizko gizarte ekintza arloa), hau da, laguntza oinarrizkoenarekin erlacionatutako sistemetan (laguntza ekonomikoak eta sostengua), zalantza barik krisi ekonomikoaren ondorio bezala, edo Laneratze arloan (Enplegua), eta bien artean ia 8.886 pertsonari eman zaie arreta. Hala ere, kopuru aldetik txikiagoak diren beste programa batzuek iraupen luzeko gizarteratze-prozesuak eskatzen dituzte (adikzioak, etxerik gabeko pertsonak...) edo denbora luzeagoa eskatzen duten prebentzio edo laguntza lanak (familia-gizarteratzea, pertsona nagusiak, haurtzaroa...).

Horrela izanik, esan behar dugu Bizkaiko Cáritasen aurretik landutako arlo guztietan lanean jarraitu dugula, baina gainera, krisiaren eraginak nolabait arintzeko ahalegin handia egin dela, dagoeneko egonkor bihurtu diren ekintzen bidez (janari-txartelak, Barakaldoko jantoki ekonomikoa, "GizaLAN"...).

Barruko datuak:

2012an, Bizkaiko Cáritasek oreka lortu zuen jasotako diru-sarreraren eta gastuen artean (12.049.652,21 €uro). Izan ere, esku-hartze gehiago egitearen ondorioz (100.000 baino gehiago) gastuak apur bat igo ziren arren, diru-sarrerak ere igo dira. Zentzu horretan nabarmendu behar dugu Bizkaiko parrokia eta elizetan egindako bilketen emaitza, urteko lau kanpainetan. Bigarren urtez jarraian 120.000 €uro baino gehiago igo dira. 2010ean 807.098 euro izan ziren eta azken urtean 1.057.097. Bereziki eskertzekoa da hori, aurretik ere Cáritasi laguntza ekonomikoa ematen aritu diren pertsonak ahalegin berezia egin dutelako, zailtasunez beteriko sasoi hauetan. Administrazio Publikoari emandako zerbitzuengatik diru-sarreraren portzentajea antzera mantendu da, guztizkoaren herena baino gutxiago.

Erakundearen indarra –ekonomikoa- bost milatik gora bazkide eta emaile horiengan datza. Beren partaidetza solidarioa bideratzeko Bizkaiko Cáritasengan konfiantza jarri duten pertsonak dira (aurreko urtean baino %8,6 gehiago); krisia hasi zenetik joera hori igotzen joan da urtez urte.

Erabilitako baliabideei dagokienez, 10 eurotik ia 2 Oinarrizko Gizarte Ekintzako programari dagozkio (harrerak), batez ere laguntza ekonomiko zuzenei (1.761.435,45 €uro). Berdin mantentzen dira pertsona gutxiagori arreta ematen dieten programak, baina prozesu luzeagoak behar dituztenak; bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak izaten dira (Etxerik gabeko Pertsonak %13; Adikzioak %13), enplegua izan ezik izan ezik, guztizkoaren %14tik %12ra jaitsi baita.

Azkenik, esan "AUREN Auditores" enpresak Bilboko Elizbarrutiko Cáritasen kontuak ikuskatu dituela, beste urte batez, eta hori egin ostean, adierazi du ondare eta finantza-egoeraren irudi erreala erakusten dutela, baita 2012ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzei dagokienez ere.

Bilboko Elizbarrutiko Cáritas - Cáritas Diocesana de Bilbao:

Cáritas Elizbarrutiaren gizarte eta karitate erakundea da eta Bizkaia osoan bazterkeria arriskuan dauden pertsonen laguntzea du helburu. Horretarako, gizarte esku-hartzerako arlo desberdinak ditu: harrera, etxebizitza, familia-gizarteratzea, haurtzaroa, edadetuak, laneratzea (enplegua), etxerik gabeko pertsonak, adikzioak, zerbitzu juridikoa eta psikologikoa, etab. Horrez gain, nazioarteko kooperazio eta migrazio programa eta honako sailak eta zerbitzuak: komunitate-animazioa, sentsibilizazioa eta komunikazioa, boluntariora, giza baliabideak eta prestakuntza, ezagutzaren kudeaketa eta ikerketa, kalitatea, argitalpenak... hala ere, Cáritasen helburu nagusia berdina izan da orain dela ia 60 urte sortu zenetik hona: Justiziaren alde lan egitea; gure gizartea eraldatu eta gizarte justuagoa lortzea, berdintasunean eta anaitasunean, eta pertsona guztiek –bazterketarik gabe- beren lekua izango dutena.